


Musika Bandia be eukitxakuak gara

AINTXIÑAKO ERMUKO IPOIÑOK JASOTZEN DITXUDAZENIAN, ITZELIAN GUSTATZEN JATA EFEMERIDIAK ETA DATAK KOINZIDIDU ERAITXIA. BERE MOMENTUAN IDATZI NEBAN BANDIA SORTU ZIRANEKO 80 URTIEN GAIÑIAN, DROGETENITTURRI 8AN; HAMAR URTE PASAU DIA ETA 9ORAK AITXATZEKO GOGUARI EZIN IZAN DOTSAT EUTSI. ORDUAN BATU EZ NITXUZAN GAUZA BATZUK AKORDURA EKARTZEN AHALEGINDU NAZ, NAHIZ ETA DATU HISTORIKUAK BARDIÑAK IZAN GAUR EGUN ETA OIÑ HAMAR URTE.



Bandiak bere sasoiari erabiltzeko musika tresneria

Bost zuzendariren arduran egon zan Bandia bizirik emon zitxuan ixa 60 urtetan: Santiago Mallagarrá, Patricio Gorosabel, Cosme Zubizarreta, Luis Albizu eta azkena Moises Gorosabel. Haren aurretik "Rondalla" talde bat egon zan. Apurka-apurka tresnak erosten juanaz osotu eben Bandia: klarinetiak, rekintuak, saxofoiak, tronpetak, tronboiak, bajuak, bombardinuak eta saxofoi tenorrakin bonbua, tanborra eta txapak nahastu ziran. Erosketan ona eñ eben itxuria ze nekez apurtuko ziran eta konpontzera be banakaren batzuk eruan bihar izan ziran. Erabiliaren erabilliaz golperen bat hartu eta maillatu, desafinau, tonua galdu, bokillako kañak zikindu eta horrelakuak gertatzen jakuen. Zaindu ezian instrumentuak ez dabe hobera eitzen, baiña han ez euan kuidaorik ze harek zaintzen ziran norberan semia edo nobixia balitza lantxek!

Jendiaren aurreko lehen agerraldia eitzeko musikuen patroia dan Sta. Cecilia eguna aukeratu eben. 1914. urtia zan. Hasieran musika ezagupera basikuenekin hasi ziran, belarrixa zan han nagusi eta soiñua harek instrumentu garauei ekiñan puruan etaraten zotsien. Gerora erreperitoxua eta konpromisuak gehitzen juan ziran heñian, musikuan kultura musikala eta pentagramak irakurtzeko

gaitxasuna zabalduz juan zan. Harek semikortxea aldrebestuei zegokixen balixua, emon eñ bihar izaten jakuen gero! Texeidor barakaldarrak egokitutako tresna bakoitzaren dako partiturak erabilliaz, pieza klasikuak herrikoiekin tarkekatzen zitxuezen.

Jaietan ezinbesteko

Jendiaren aurrian agertu bihar ziranian, oholekin eindako plataforma bat josten jakuen. 1940. urtian baiña, udalletxiaren barriztaze lanetan harrixa garbitziaz gain, pisu bat gehixago altxatzia eta Bandiarendako aterpetxo bat etaratzeko premiña ikusi zan. Urte guztiko konpromisuak Udalarekin alde aurretik lotzen ziran: prozesiñuetan laguntzia, pasakalliak, jaixegunetako bailabliak, Gabonetako lau kontzertuak... Kontzertuetan hain estilo desberdiñetako piezak jotzen ziran ze, eurok prestatziak emoten ebala biharlekuri haundiña, gogor eta derrigorrian entsaiu bihar izaten zan eta.

Jai usaiña baeuan herrixan, hantxe egongo zan Bandia. Corpusti eta Pasko egunen moduko jai haundixetan goizian pasakallesa, meza ostian kontzertua eta gabian bailabliak jotzen zitxuezen. Santixauetan, zezer egunero. Neguan, hillian behin, domeka illuntzixetan bailabliak plazan eta udan, jaixegunero: pasodobliak, tanguak, balsak, ha-

KUS KUS
kafe antzokia

Ermuko leku aproposena

Komentukua z/g

Eguneroko zerbitzua:
ERMUA, EIBAR, MALLABIA,
ZALDIBAR, BERRIZ, BILBO

Zama guztientzako eskualdeko zerbitzua
ERANDIO GARRAIOAK

Bulegoa: Zeharkalea, 27 • (943) 17 03 14 •
ERMUA



Bandia Zubiaurren. Atzian, Justiren dendia eta Bibotesen tabernia.

banerak, mazurkak... Andrakumak zabaltzen eben bailiori generalian, euren artian bikiotia einda. Mutillak hurreratzten juaten zian banaka-banaka dantzan eskatzera eta sarritxan kalabazak hartu be. Harrek matrakok eskuakin ezetz esaten ebenian, martxa atrasian lehengo lekura!

Ekitaldi luzeko egunetarako, kanpotik ekarritxako Orkestina bat kontratatzen eban Udalak euren akordeoi, saxofoi eta abarrokin Bandakuak arnasa apurtxo bat hartu deixian, ekiñaldi luzia izaten eben eta: arratsaldeko bostetatik zortziretara eta bederatzi edo hamarretan barriro ekin, ordu batak artekua. Eurixa eixen ebanetan, arintxuago josten eben ahal danik eta laste-

rreren danok martxando eñ ahal izateko. Oñ, bailabliak guardasolpian dantzau ditxuezenak be ba ei dira. Aste guztixa haretxen zain emoten eben askok, zapatuan be biharrara ein bihar izaten zan. Domeka illuntziko musika jotaldixori eta haren atxakixan sortutako gustokuen gora-behera eta arrimatekuen esame-sak, hurrengo domekararte saltzia ipintzen eben ogixa eroatera juaterakuan, txiketeuan, tallarretako bokadillo orduetan edo modistianian.

Lotura haundiko

Entsaio lekua Palazixua izan zan lehenengo eta gero Udaletxe zaharra. Adostutako orduan eta egunian egotia ezinbestekua zan, instrumen-


turen bat faltau ezkerro beste danak hankakoju eta ganoraz entsaiu eziñik geratzen ziralak. Horrenbeste urtetan aurre eixia horrelako loturiari, esfortsu eta afeziño haundixaren ondorixua besterik ezin da izan. Eta guztiori txakur haundirik kobrau be eñ barik; Sta. Cecilia egunian afari mundiala eñ eta kitxo!

Musika tresnekin fameliarizatzen gazte-gazterik hasten ziran asko, hamaika hamabi urtekin eta euren ibilbide musikalian instrumentu bat baiño gehixao jotera aillegatzen ziran. Tontamentian hasi eta betirako lotzen ziran, gehixenguak Bandiari amaierarte eutsiko zotsien eta.

Herrixa hazten zoiala, kale barrixak eñ eta izenak ipin-

tzeko premiña sortu zan. 1964.urtian Santukua baserri txik Karabixara zoian eta gaur Goienkale danari egokitxu jakon "Banda Sta. Cecilia" izena, hau sortu ziraneke 50 urtiak zirala eta. Gixira, 1973. urtian, desegin eta 1974ko Sta. Cecilia egunian emon eben euren azken kontzertua. Baiña ez zan juan bere hazitxua laga barrik, ez. Urtiak beranduago gaurko musika gustuetara egokitxutako semetxua jaixo zan: Irulitxa Txarangia. Entzun dogunez gaiñera Banda barri bat sortzekotan dira barriro. Zurrumurru eta ilusiñuen lapikua irakitxen hasi da, nostalgikuon gozamenerako.

Estibalitz González



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 71

943172665

ERMUA



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona